

AIPAMEN DUALA

UNIBERTSITATE-ENPRESA

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua
Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Gipuzkoako Atala)

Enpresentzako dossierra

Zer da aipamen Duala?

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako (EAZ) Graduaren Unibertsitate Enpresa Aipamen Dualak* aukera ematen du konbinatzeko unibertsitateko prestakuntza akademikoa eta enpresa edo erakunde laguntzaile batean eginiko prestakuntza edo lan jarduera.

Enpresa eragile aktibo bat da ikaslearen hezkuntza prozesuan, eta fakultatearekin elkarlanean dihardu, jarduerak definitzen, ikaslea tutorizatzen, haren bilakaeraren jarraipena egiten eta ikasleak ikasitakoa baloratzen.

Ibilbide hau bereziki pentsatuta dago tituluaren fase aurreratu batean dauden EAZko ikasleentzat, eta oinarritzen da hezkuntza proiektu planifikatu eta mailaz mailako batean, enpresa kudeaketak berezkoak dituen gaitasunei loturikoa.

Aipamen dual honek Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren kalitate zigilua du.



* 822/2021 Errege Dekretua, 2021eko irailaren 28koa, unibertsitate ikasketen antolamendua eta haien kalitatea ziurtatzeko prozedura ezartzen dituen.

Zer ekarpen egiten dio nire enpresari?

Unibertsitate talentua

Enpresak laguntzen du EAZko ikasleen prestakuntzan, orientazio profesionala eskainiz haiek ikasitakoari, enpresaren premia errealera egokituta.

Pixkanaka integratzea eta egokitzea

Unibertsitate prestakuntza, enpresa jarduera eta tutoretza bikoitza konbinatzeak laguntzen du erakundean pixkanaka sartzen eta ingurune profesionalera hobeto egokitzen.

Berrikuntza eta ezagutzaren transferentzia

EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultatearekin (Gipuzkoako Atala) elkarlanean aritzeak laguntzen du unibertsitate jakintza enpresetara hurbiltzen, eta ikuspegi berriak, hobekuntza eta berrikuntza dakartza.

Prestakuntza kalitatea eta tutoretza

Enpresan eginiko jarduera oinarritzen da prestakuntza proiektu komun batean, tutore akademikoaren eta enpresako instruktorearen laguntzaz.

Konpromisoa eta egonkortasuna

Ikas-ekinezko prestakuntza kontratuak aukera ematen du konbinatzeko lan jarduera ordaindua eta unibertsitate prestakuntza, esparru argi eta egonkor baten barruan, indarrean dagoen araudira egokituta.

Jarduera arloak

EAZ Aipamen Dualari esker, enpresaren proiektuetara bidera daiteke jarduera. Hona hemen adibide batzuk

Eraldaketa digitala

Prozesuak hobetzen ditu, tresna digitalen eta barne lankidetzako modu berrien bidez.

Ingurumen jasangarritasuna eta estrategia

Bultzada ingurumen kudeaketa, jasangarritasun eta 2030 Agendaren egitasmoei.

Berrikuntza eta barne-ekintzailatza

Idea, zerbitzu, prozesu edo hobekuntza lerro berriak garatzea.

Prozesuen kalitatea eta hobekuntza

Barne prozeduren dokumentazioa, berrikuspena eta optimizazioa.

Gizarte erantzukizuna, aniztasuna eta berdintasuna

Berdintasunari, aniztasunari eta lan ingurune arduratsuari loturiko ekintzak bultzatzea.

Pertsonak eta talentua kudeatzea

Harreran laguntzea, prestakuntza, barne-komunikazioa eta lantaldeen garapena.

Datuen analisia eta kudeaketa kontrola

Adierazleak, txostenak eta aginte koadroak, erabakiak hartzeko.

Nazioartekotzea eta kanpoko merkatuak

Merkatu analisia, merkataritza kanalak eta ingurune berrietara egokitzea.

Operazioak eta antolakuntza hobekuntza

Lan fluxuak, barne koordinazioa eta efizientzia operatiboa optimizatzea.

Programa antolaketa

EAZ Aipamen Dualaren gutxi gorabeherako egutegia 2026/2027 ikasturterako:

Egonaldia I: Enpresan hastera

Aldia: 2027 otsaila – ekaina

Arduraldia: 325 ordu; 16 ordu/aste

Lehenengo egonaldia hainbat lanalditan antolatzen da. Ikasleari laguntzen zaio enpresan pixkanaka sartzen, lan akademikoarekin bateragarria den arduraldi batekin.

Egonaldia II: murgiltze tekniko eta erantzukizunak hartzea

Aldia: 2027 iraila – abendua

Arduraldia: 250 ordu; 16 ordu/aste

Bigarren egonaldi honetan, ikasleak bere gain hartzen ditu garrantzi eta autonomia handiagoko zereginak, eta EAZ graduan ikasitakoa aplikatzen du ingurune erreal batean

Egonaldia III: finkatze profesionala eta espezializazio tekniko

Aldia: 2028 urtarrila – apirila

Arduraldia: 375 ordu.

Jarduera handiagoa enpresan, erantzukizun handiagoko zereginetan, gaitasunak sendotzeko.

Gradu Amaierako Lana

Aldia: 2028 maiatza – ekaina/uztaila

Arduraldia: 300 ordu.


Helburua: enpresaren erronka, analisi edo proiektu erreal bati loturiko GRALA egitea.

Kronograma

Oro har, EAZ Aipamen Dualak 1.250 ordu ditu gutxi gorabehera (GRAL barne).

Egonaldia Enpresan I

Otsaila 2027– Ekaina 2027




Egonaldia Enpresa II

Iraila 2027–Abendua 2027




Egonaldia Enpresan III

Urtarrila 2028–Apirila 2028



GrAL

Apirila 2028-ekaina/uztaila. 2028



Enpresa-Ikasle-EHU lotura

Oro har, enpresaren eta ikaslearen arteko harremana oinarritzen da ikas-ekinezko prestakuntza kontratu batean*.

Kontratu modalitate honek aukera ematen du bateragarri egiteko lan jarduera ordaindua eta unibertsitate ikasketak, baldin eta enpresan eginiko jarduerak lotura badu EAZ graduarekin eta banakako prestakuntza planarekin.

Enpresak, fakultateak eta ikasleek aurretik zehaztu behar dituzte prestakuntza proiektua, aurreikusitako zereginak, egutegia, arduraldia, tutorea edo instruktorea, eta jarraipen sistema.

Lan baldintza zehatzak egokitu egingo dira formalizatutako kontratura, hitzarmen kolektibora eta indarrean dagoen araudira.

*1065/2025 Errege Dekretua, azaroaren 26koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 11. artikuluan aurreikusitako prestakuntza kontratuaren araubidea garatzen duena (testu bategin hori urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

Tutoretza

Tutoretza oinarritzen da fakultatearen eta enpresaren arteko etengabeko elkarlanean, ikasleari laguntzeko era pertsonalizatu batean.

Ikasle bakoitzak bi erreferentziako pertsona ditu: EHUko tutore akademikoa eta enpresako tutorea edo instruktorea.

Bi tutoreek koordinatzen dute prestakuntza proiektu komunaren garapena, eta ziurtatzen dute enpresan eginiko lanak bat datozela ikaskuntza helburuekin. Tutore akademikoa arduratzen da ibilbidearen koherentzia globalaz; aldiz, instruktorea ikaslearen ondoan dago enpresaren egunerokoan, banakako plana gainbegiratzen du eta mailaz mailako kalitatezko murgiltze profesionala errazten du.

Araudiak dio enpresako instruktoreak ikastegiaren adostasuna eta esperientzia profesionala izan behar dituela, bai eta ezagutza egokiak ere, tutoretza lana eraginkorra izan dadin.

Izendatutako pertsonen Venia Docendi-a ematen zaie; hau da, fakultateak instruktoreei eginiko aitortza.

Aliantzak

ADEGI

ADEGIk erakunde laguntzaile gisa parte hartzen du EAZ graduaren Unibertsitate-Enpresa Aipamen Dualean, eta indartu egiten du Ekonomia eta Enpresa Fakultatearen eta lurraldeko enpresa sarearen arteko konexioa.

ADEGIren laguntzari esker, programa Gipuzkoako enpresetara hurbiltzen da, prestakuntza proiektu egokiak identifikatzen dira, eta ikas-ekinezko prestakuntza araubidea garatzen da, fakultatearekin eta erakunde parte hartzaileekin koordinatuta.

Aliantza honen bidez, indartu egiten dira EAZ Aipamen Dualaren orientazio praktikoa, enpresen premia errealekin duen lotura eta unibertsitate talentu kualifikatuarekin duen konpromisoa.

Erakunde laguntzaileak

 **UVESCO**

 **Angulas Aguinaga**

 **BELLOTA**

 **KENDU**

 **orkli**

 **ikei**

URKABE

 **fegemu SOLUTIONS**

 **Pasquier**

 **DÜRR**

 **Orona**

LABORAL
kutxa

 **ORBINOX**

 **aner**

 **RURAL KUTXA**

ABICOR 

 **fundibide GROUP**

matia

 **pwc**

 **sukia**

Deloitte.

indi & cold
SAN SEBASTIAN

 **MULTIVERSE**
COMPUTING

 **ZUCCHETTI**

 **campezo**

 **VIRALGEN**

 **Sayma**

 **SWAP**
energia

Parte hartu Aipamen Dualean

Lagundu Ekonomia eta Enpresa Fakultateari (Gipuzkoako Atala) Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan unibertsitate talentua sortzen.

Interesa duten enpresek proposa dezakete EAZ graduari lotiruko jarduera, arlo edo prestakuntza proiektu bat.

Kontaktua:

Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Gipuzkoa Atala)
Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)

Plaza Oñati 1
20018 Donostia Gipuzkoa

Informazio gehiago:
bidelan@ehu.eus
943 01 83 51